| | |
|---|---|
| **ALAN R. KING KATEDRARAKO UNIVERSITY OF WALES TRINITY SAINT DAVID UNIBERTSITATEAN, EGONALDIRAKO IKERTZAILE/IRAKASLE GONBIDATUA AUKERATZEKO DEIALDIA (2023)** | **GALWAD AGORED AR GYFER YMGEISYDDION CYMRODORIAETH ALAN R. KING YM MHRIFYSGOL CYMRU Y DRINDOD DEWI SANT (2023)** |
| Etxepare Euskal Institutuak (aurrerantzean Etxepare) eta UNIVERSITY OF WALES TRINITY SAINT DAVIDek, lankidetza hitzarmena sinatu dute, University of Wales Trinity Saint David-en Euskal soziolinguistikari buruzko ikerketa eta ezagutza sustatzeko lankidetzan jarduteko xedearekin.<br><br>Aipatu hitzarmenaren testuinguruan, Etxeparek eta University of Wales Trinity Saint David-ek "*Alan R.King irakasle/ikertzaile bisitaria 2023*" izeneko deialdi hau argitaratu dute. Deialdia http://www.etxepare.eus eta www.uwtsd.ac.uk/cawcs webguneetan zabalduko da. | *Mae Sefydliad Basgeg Etxepare (Etxepare) a Phrifysgol Cymru Y Drindod Dewi Sant wedi llofnodi cytundeb cydweithio i gefnogi ymchwil ym maes sosioieithyddiaeth yr Iaith Fasgeg.*<br><br>*Fel rhan o'r cytundeb cydweithio, mae Etxepare a'r Brifysgol yn agor yr alwad ar gyfer ceisiadau i Gymrodoriaeth Alan R. King 2023 a gyhoeddir yn http://www.etxepare.eus a www.uwtsd.ac.uk/cawcs.* |
| **1. XEDEA** | ***1. NOD*** |
| Deialdi honen xedea da 2023 urteko ekitaldirako Alan R. King Katedrarako ikertzaile/irakasle gonbidatua hautatzea, Euskal soziolinguistika gaiari buruzko jarduera akademikoak eta ikerketakoak burutu eta Galesaren eta Zeltikoaren Ikasketa Aurreratuetako Zentroan (CAWCS) 6 aste arteko egonaldia egin dezan. | *Nod yr alwad hon yw dewis Cymrawd Alan R. King ar gyfer 2023. Bydd y Cymrawd yn cynnal gweithgareddau academaidd ac ymchwil ym maes sosioieithyddiaeth Basgeg yn ystod preswyliad o hyd at chwe wythnos yn y Ganolfan Uwchefrydiau Cymreig a Cheltaidd.* |
| **2. EGONALDIAREN DESKRIBAPENA** | ***2. DISGRIFIAD O'R GYMRODORIAETH*** |
| Egonaldia 2023 urtean zehar izango da. | *Bydd y Gymrodoriaeth yn cael ei chynnal yn ystod blwyddyn galendr 2023.*<br>. |

| | |
|---|---|
| Programaren ezaugarriak hauek dira:<br><br>1) Urtero ikerketa mintegia edo hitzaldi irekia CAWCS-en euskal soziolinguistikari lotutako edozein arloren, hizkuntza politika eta plangintzaren inguruan, CAWCS-eko online ikerketa mintegi edota hitzaldi sailean txertatua (45 minutuko hitzaldia eta 30 minutu arteko eztabaida)<br><br>2)Elebitasuna eta Eleaniztasunean Master Programan https://www.uwtsd.ac.uk/ma-bilingualism-multilingualism/ 2-3 ordu saio bakarrean edo hainbat saiotan banatuak, ikasgaietako koordinatzaileekin lankidetzan.<br><br>3) bi orduko saioa Hezkuntza / Gazteriarekin Lana, Film, Eremu Digitala eta Sormen sektoreko programa akademikoan Hizkuntza eta Gizartea Euskal Herrian eremuari lotutako gai bati buruz, ikasgaietako koordinatzaileekin lankidetzan.<br><br>4)2-3 orduko mintegia ikasle graduatu, ikertzaile eta profesionalei irekia ikerketa mintegiko edota hitzaldiko (1. ekintza) gaiari lotua ideiak sakontasunez trukatu eta garatzeko fokua soziolinguistika arloan jarrita.<br><br>Gainera, bost ordu arteko euskarako eskolak edo mintegia eskainiko zaie ikertzaile eta hizkuntzalariei euskal gramatika edota hizkuntzalaritzari buruz, antolatzaileek eskura jarritako baliabideen laguntzaz. | *Disgrifiad o'r Rhaglen:*<br><br>*1) Un seminar ymchwil neu ddarlith flynyddol i'w rhoi ar unrhyw agwedd ar Sosioieithyddiaeth Basgeg, Polisi Iaith a Chynllunio fel rhan o gyfres Seminarau a Darlithoedd Ymchwil y Ganolfan Geltaidd ar-lein (cyflwyniad 45 munud ynghyd â hyd at 30 munud o drafodaeth).*<br><br>*2) 2 neu 3 awr mewn un neu fwy o sesiynau fel rhan o'r rhaglen MA Dwyieithrwydd ac Amlieithrwydd mewn cydweithrediad ag arweinwyr cyrsiau. https://www.uwtsd.ac.uk/ma-bilingualism-multilingualism/*<br><br>*3) Sesiwn dwy awr ar bwnc sy'n ymwneud ag Iaith a Chymdeithas yng Ngwlad y Basg fel rhan o'r rhaglenni mewn Addysg, Gwaith Ieuenctid, Ffilm, Digidol, Creadigol mewn cydweithrediad ag arweinwyr cyrsiau.*<br><br>*4) Gweithdy dwy neu dair awr sy'n agored i fyfyrwyr graddedig, ymchwilwyr, gweithwyr proffesiynol ac ymarferwyr ar bwnc sy'n ymwneud â'r seminar ymchwil neu'r ddarlith (gweithgaredd 1) er mwyn cyfnewid a datblygu syniadau'n fanylach a chanolbwyntio ar faes Sosioieithyddiaeth*<br><br>*Yn ogystal, cynigir hyd at 5 awr o ddosbarthiadau neu seminarau Iaith Basgeg i ymchwilwyr ac ieithyddion agweddau ar Ramadeg Basgeg neu Ieithyddiaeth Basgeg, gyda chefnogaeth deunyddiau a ddarperir gan y trefnwyr.* |
| **3. EGONALDIAREN XEDEA** | ***3. NOD Y GYMRODORIAETH*** |
| Soziolinguistikaren, hizkuntza plangintza eta hizkuntza politikaren, literaturaren, kultura eta hizkuntzen esparruetako ikerketetan oinarritutako lankidetza pedagogiko bat ezartzea euskal eta galestar eremuen artean. | *Sefydlu cydweithrediad sy'n seiliedig ar ymchwil ac addysgeg ym maes sosioieithyddiaeth, cynllunio iaith a pholisi, llenyddiaeth, diwylliant ac ieithoedd rhwng y cyd-destunau yng Nghymru ac yng Ngwlad y Basg.* |

| | |
|---|---|
| Ikerketa bateratua garatzea Gales eta Euskal Herriaren arteko kultur-arteko komunikazioaren alorrean.<br>Informazio zientifikoa eta alde bakoitzeko hizkuntza, kultura eta herrialde politiken ingurukoa elkarri ematea. | *Datblygu ymchwil ar y cyd mewn perthynas â chyfnewid diwylliannol rhwng Cymru a Gwlad y Basg.*<br><br>*Cyfnewid gwybodaeth academaidd a gweithgaredd polisi am yr ieithoedd, y diwylliannau a'r gwledydd* |
| **4. ESKABIDEAK AURKEZTEA** | ***4. Y CAIS*** |
| **4.1. Eskatutako agiriak**: eskaerei honako dokumentuak gehitu beharko zaizkie:<br>-Curriculum Vitae<br>-NAN edo pasaportearen fotokopia<br>-Doktore tituluaren fotokopia<br>-egungo lan kontratua<br>- Euskal soziolinguistikari, euskal testuinguruko hizkuntza politikari edota hizkuntza plangintzari buruzko artikulu akademikoaren ebidentzia<br>-proposatutako ekintzen proiektua (1. eta 4. ekintzetarako proposamenak, gehienez 2 orrialde denera, Times New Roman 12, 1,5 lerroarteko espazioan). | *4.1 Dogfennaeth ofynnol: rhaid anfon y dogfennau canlynol ynghyd â'r cais:*<br>*- CV*<br>*- Llungopi o ID neu basbort*<br>*- Llungopi o Dystysgrif PhD.*<br>*- Cytundeb cyflogaeth cyfredol*<br>-Tystiolaeth o un cyhoeddiad academaidd ar Sosioieithyddiaeth Basgeg a/neu Bolisi Iaith a Chynllunio yng Nghyd-destun Gwlad y Basg<br>- prosiect gweithgaredd (cynigion ar gyfer gweithgaredd yn 1 a 4., ar y cyfan, 2 dudalen i gyd gyda bylchau o 1.5 llinell, a'r testun wedi'i osod mewn ffont Times New Roman pwynt 12.)<br>. |
| **4.2. Aurkezteko epea:**<br>Eskabideak aurkezteko epea 2023ko otsailaren 3an (barne) amaituko da. Ez dira aintzat hartuko data horretarako dokumentazio guztia behar bezala aurkeztuta ez duten eskabideak. | ***4.2. Dyddiad cau ar gyfer ceisiadau:.***<br><br>*Dyddiad cau ceisiadau yw'r 3ydd o Chwefror 2023. Ni chaiff ceisiadau heb y dogfennau gofynnol eu hasesu.* |
| **4.3. Aurkezteko modua:**<br><br>Eskabidea (I. eranskina) eta dokumentazioa ondorengo pertsonari eta ondoko helbide elektronikora bidaliko zaio:<br>Elin Haf Gruffydd Jones Dra.<br>*canolfan@cymru.ac.uk*<br><br>Eskabidea http://www.etxepare.eus eta *www.uwtsd.ac.uk/cawcs* helbidean egongo da eskuragarri, euskaraz, galeseraz, ingelesez eta gazteleraz. | ***4.3. Y broses ymgeisio:***<br><br>*Rhaid anfon y ffurflen gais a'r dogfennau gofynnol drwy e-bost at yr Athro Elin Haf Gruffydd Jones :*<br><br>*canolfan@cymru.ac.uk*<br><br>*Mae'r ffurflen gais ar gael yn http://www.etxepare.eus a www.uwtsd.ac.uk/cawcs yn y Fasgeg, y Gymraeg, y Saesneg a'r Sbaeneg* |
| **5. HAUTAGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK** | ***5. CYMHWYSEDD YMGEISWYR*** |
| Onartua izateko hautagaiak:<br>-Doktore titulua izango du, | *Rhaid i ymgeiswyr:*<br>*- fod â doethuriaeth,* |

| | |
|---|---|
| -Unibertsitate mailako ikertzaile edo irakasle izango da unibertsitatean, edo ikerketa zentro batean, edo helduen euskalduntzeari lotutako erakunde edo organo batean, edo irakasle izango da bigarren hezkuntzako eskola batean;<br>-Euskal soziolinguistikan edota euskal testuinguruan hizkuntza politikan eta hizkuntza plangintzan ikerketa ibilbidea izango du, gutxienez artikulu akademiko batekin;<br>-Ingelesean gutxienez B2 gaitasun maila egiaztatua izango du Unibertsitateko testuinguru akademikoan irakaskuntza eta ikerketa programa eskaini ahal izateko | *-fod yn ymchwilydd neu'n aelod addysgu o staff mewn prifysgol neu mewn canolfan neu sefydliad ymchwil neu sefydliad sy'n ymwneud ag addysgu Basgeg i oedolion neu sosioieithyddiaeth neu'n aelod o staff addysgu ar lefel uwchradd;*<br>*-Meddu ar brofiad ymchwil mewn Sosioieithyddiaeth Basgeg a/neu Bolisi a Chynllunio Iaith yn y cyd-destun Basgeg, gydag o leiaf un cyhoeddiad academaidd yn y maes ymchwil hwn;*<br>*-Bod â sgiliau iaith Saesneg ar lefel B2 o leiaf, er mwyn gallu cynnig y rhaglen addysgu ac ymchwil yn Saesneg yng nghyd-destun academaidd y Brifysgol.* |
| **6. BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA BESTELAKO BALIABIDEAK** | ***6. YR ADNODDAU CYLLIDOL A GYNIGIR*** |
| Hautatutako ikertzaile/irakasleak egonaldirako **gehienez ere** Etxepare Euskal Institutuaren aldetik **4000€** arteko laguntza jasoko du, bidaia-gastuak, ordainsaria, eta kasua bada osasun-asegurua eta dietak estaltzeko.<br>.<br><br>Halaber, Unibertsitatearen aldetik ekarpena gehienez ere **4000€koa** izango da irakasle gonbidatuaren ostatua, bulego-espazio eta ekipamenduaren kostua, bertako garraio kostuak eta Katedrako programa akademikoari lotutako eta irakasle gonbidatuari eskainitako kultur programari lotutako bestelako kostuak kontuan izanda. | *Bydd Sefydliad Basgeg Etxepare yn cyfrannu hyd at uchafswm o 4000 ewro ar gyfer y Gymrodoriaeth i dalu am gostau teithio, grant cymrodoriaeth a, lle y bo'n briodol, yswiriant iechyd a per diem.*<br><br>*Bydd y Brifysgol yn cyfrannu hyd at uchafswm o 4000 ewro i dalu am lety, gofod swyddfa a chyfleusterau, teithio lleol a chostau eraill sy'n gysylltiedig â chyflwyno'r rhaglen academaidd yn ogystal â'r rhaglen ddiwylliannol a gynigir i'r Cymrawd.* |
| **7. HAUTAPEN-BATZORDEA** | ***7. PANEL DETHOL*** |
| Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko Hautapen-batzorde bat eratuko da. Honako hauek izango dira bertako kide:<br>Lehendakaria: Garbiñe Iztueta Goizueta, EEIko Euskara Sustatu eta Hedatzeko Zuzendaria.<br><br>Batzordekideak:<br>-Irene Larraza Aizpurua, EEIko Zuzendaria<br>- Elin Haf Gruffydd Jones, University of Wales Trinity Saint David | *Bydd panel dethol yn asesu'r cynigion. Ei aelodau fydd:*<br>*Cadeirydd: Garbiñe Iztueta Goizueta, cyfarwyddwr hyrwyddo a lledaenu Iaith Basgeg Sefydliad Basgeg Etxepare.*<br><br>*Aelodau:*<br>*- Irene Larraza Aizpurua, cyfarwyddwr Sefydliad Basgeg Etxepare.*<br>*- Elin Haf Gruffydd Jones, Prifysgol Cymru Y Drindod Dewi Sant*<br>*- Dylan E Jones, Prifysgol Cymru Y Drindod Dewi Sant* |

| | |
|---|---|
| - Dylan E Jones, University of Wales Trinity Saint David<br><br>Idazkaria: Eneko Agirre Maiora, EEIko Euskara eta Kultura teknikaria, edo bere ordezkoa hitz egiteko eskubidearekin, baina botorik gabe. | *- Ysgrifennydd: Eneko Agirre Maiora, Technegydd Iaith a Diwylliant Basgeg yn Sefydliad Basgeg Etxepare, neu ddirprwy, a fydd yn cyfrannu at y drafodaeth ond heb bleidlais.* |
| **8. HAUTAPEN-IRIZPIDEAK**<br>Hautagaien aukeraketa honako baremoaren arabera egingo da eta, guztira, 100 puntu lortu ahal izango dira gehienez ere:<br><br>CV: 40 puntu<br><br>Curriculumean ondorengoak hartuko dira kontuan: aurrera eramango diren ekintzei lotutako ibilbide akademikoa/profesionala azken hamar urteetan, azken hamar urteetako nazioarteko proiektuetan eskarmentua, nazioartean ikerketa egonaldietan eskarmentua eta elkarlanean ikerketa egiten eskarmentua<br><br>Aurkeztutako proiektua: 60 puntu.<br><br>Euskal Soziolinguistikaren gaiari lotutako proiektuan ondorengoak balioetsiko dira:<br>-proiektuaren kalitatea<br>-euskal eta galesaren soziolinguistikaren edo euskal eremuari lotutako hizkuntza politika eta plangintzaren ezagutza indartzeko ekarpena eta garrantzia<br>-bideragarritasuna egonaldiaren parametroak kontuan hartuta<br>-alde berritzaileak<br>-genero ikuspegiaren eta aniztasunaren txertaketa | ***8. MEINI PRAWF AR GYFER DETHOL***<br>*Detholir y Cymrawd ar sail y meini prawf canlynol. Bydd pob cais yn derbyn hyd at 100 o bwyntiau.*<br><br>*CV: 40 pwynt.*<br><br>*Gwerthusir gyrfa academaidd/broffesiynol yr ymgeisydd dros y deng mlynedd diwethaf, mewn perthynas â'r maes ymchwil arfaethedig, profiad mewn prosiectau rhyngwladol, profiad o ymweliadau ymchwil rhyngwladol, a phrofiad o brosiectau ymchwil cydweithredol yn ystod y deng mlynedd blaenorol.*<br><br>*Prosiect: 60 pwynt.*<br><br>*Gwerthusir y Prosiect mewn perthynas â maes ymchwil Sosioieithyddiaeth Basgeg, yn ôl*<br>*- ansawdd y prosiect*<br>*- cyfraniad a pherthnasedd wrth ddyfnhau cyd-ddealltwriaeth o sosioieithyddiaeth y Fasgeg a'r Gymraeg neu bolisi a chynllunio iaith (yng nghyd-destun Astudiaethau Basgeg)*<br>*- hyfywedd y prosiect o fewn cyd-destun y Gymrodoriaeth*<br>*- agweddau arloesol y prosiect*<br>*- amrywiaeth a chydraddoldeb rhywiol* |
| **9. HAUTAGAIEN AUKERAKETA** | ***9. Y BROSES DDETHOL*** |
| Baldintzak betetzen dituzten aurkeztutako eskabide guztiak aipatutako hautapen-irizpideak aplikatuz ebaluatuko dira. Proiektuak hurrenkera batean jarriko dira, baloraziorik altuenak lortzen dituzten eskabideetatik hasita. Hautapen Batzordeak hautagai bat proposatuko du. | *Bydd ymgeiswyr sy'n bodloni'r cymwysterau gofynnol yn cael eu hasesu yn unol â'r meini prawf dethol. Bydd prosiectau ymchwil yn cael eu rhestru yn ôl y sgôr uchaf. Bydd y panel dethol yn cynnig ymgeisydd.*<br><br>*Ni ddyfernir y Gymrodoriaeth o dan unrhyw un o'r amgylchiadau canlynol:* |

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

Prifysgol Cymru Y Drindod Dewi Sant University of Wales Trinity Saint David

| | |
|---|---|
| Deialdi honetan eskainitako plaza esleitu gabe gelditu ahalko da honako kasuetan:<br>- Hautagaiek puntuazio orokorrean 50 puntu baino gutxiago lortzen badituzte.<br>- Deialdi hau argitaratu ondoren, edozein arrazoi medio, University of Wales Trinity Saint David, eta EEIren arteko lankidetza hitzarmena gauzatzen ez bada edo bertan behera gelditzen bada. | *- Os bydd pob ymgeisydd yn sgorio llai na 50 pwynt.*<br>*- Os, ar ôl cyhoeddi'r alwad, bydd y cytundeb rhwng Prifysgol Cymru Y Drindod Dewi Sant a Sefydliad Etxepare yn cael ei dynnu'n ôl.* |
| **10. JAKINARAZTEA** | ***10. HYSBYSU*** |
| University of Wales Trinity Saint David eta Etxepare Euskal Institutuaren webguneen bitartez emango da hautatutako pertsonen eta plazarik gabe geratutako hautagaien berri. Azken hauek erreserban egongo dira, hautatuek ukoa aurkeztu edo ordezkatu beharra gertatuta ere.<br>Web-orrian zerrenda horren berri eman eta berehala, Etxepare Euskal Institutua harremanetan jarriko da aukeratutako pertsonekin, egin beharreko izapideak ahalik eta azkarren egiteko. | *Cyhoeddir y rhestr a fydd yn cynnwys yr ymgeisydd llwyddiannus a'r eilyddion ar dudalennau Prifysgol Cymru Y Drindod Dewi Sant a Sefydliad Etxepare. Os bydd yr ymgeisydd a ddewiswyd yn gwrthod y Gymrodoriaeth, defnyddir y rhestr eilyddion ar gyfer ymgeisydd newydd.*<br>*Unwaith y bydd y rhestr wedi'i chyhoeddi, bydd Sefydliad Etxepare yn cysylltu â'r ymgeisydd i hwyluso'r broses.* |
| **11. UKOAK ETA ORDEZKAPENAK** | ***11. GWRTHOD A NEWID YMGEISYDD*** |
| Hautatutakoak University of Wales Trinity Saint Davidera joan aurretik egonaldiari uko egiten badio, Unibertsitateak eta EEIk ordezkoen zerrendatik hautagai berria proposatuko dute, ordezkoen zerrendaren hurrenkeran. | *Os bydd yr ymgeisydd a ddewiswyd yn gwrthod y Gymrodoriaeth cyn cyrraedd Prifysgol Cymru Y Drindod Dewi Sant, bydd Sefydliad Etxepare a'r Brifysgol yn dewis ymgeisydd newydd yn dilyn trefn y rhestr eilyddion.*<br>. |
| **12. ONURADUNEN BETEBEHARRAK** | **12. YMRWYMIADAU'R CYMRAWD** |
| **12.1.** Egonaldietan parte hartzea onartzea: erabakia jakinarazi eta hamar eguneko epean, hautatuek idatziz onartu beharko dute egonaldian parte hartu eta egonaldiaren baldintzak betetzea. Hala egiten ez badute uko egiten dutela ondorioztatuko da.<br>**12.2.** 2023 urtean zehar University of Wales Trinity Saint Daviden sei aste arteko egonaldia egitea. Egonaldiko gutxienez lau astek urte akademiko barruan izan beharko dute, egutegi akademiko zehatza hemen: [https://uwtsd.ac.uk/about/university-term-dates/](https://uwtsd.ac.uk/about/university-term-dates/) *Hautagaiek eskabidean zehaztu* | *12.1. Derbyn y Gymrodoriaeth: bydd yr ymgeisydd yn derbyn y Gymrodoriaeth yn ysgrifenedig a'r ymrwymiadau o fewn deg diwrnod o gael ei hysbysu. Os na chaiff yr amod hon ei bodloni, ystyrir fod yr ymgeisydd wedi gwrthod y Gymrodoriaeth.*<br><br>*12.2. Ymgymryd â phreswyliad o hyd at chwe wythnos ym Mhrifysgol Cymru Y Drindod Dewi Sant yn ystod y flwyddyn galendr 2023. Dylai'r preswyliad gynnwys o leiaf pedair wythnos yn ystod y tymor. Gweler dyddiadau.*<br>[https://uwtsd.ac.uk/cy/amdano/dyddiadau-](https://uwtsd.ac.uk/cy/amdano/dyddiadau-) |

| | |
|---|---|
| *beharko dute egonaldirako lehenesten dituzten gutxi gorabeherako datak*<br>**12.3** Emandako ordainsaria onartutako egitarau akademikoaren garapenerako erabiltzea eta gastuen justifikazioa aurkeztea.<br>**12.4.** Aukeraturiko ikertzaile/irakasleak konpromisoa hartzen du bere lanaren prozesua, emaitza, edo honen zati bat, ikastaro, hitzaldi edo antzeko topaketa baten bidez partekatzera, eta Etxepare Euskal Institutuarekin adosturiko formatuan. Era berean, garatutako proiektuaren balorazio-memoria bat aurkeztu beharko dute.<br>**12.5.** University of Wales Trinity Saint Davidek eta EEIk ikertzaile/irakasleak egonaldiaren ondorioz plazaratzen dituen ikerketa lanak beren plataformen bidez zabaltzeko eskubidea izango dute baldin eta erabilera komertzialik ez bada.<br>**12.6**. Egonaldi honen ondorioz sortutako ikerketa lanen egile eskubideak ikertzaile/irakaslearen esku geratuko dira, baina haiek hedatzean beren-beregi adierazi beharko da lanaren jatorria University of Wales Trinity Saint David eta EEIk bultzatutako egonaldia dela. | *tymor-y-brifysgol/ Dylai ymgeisyddion nodi eu dewis dyddiadau yn y cais.*<br>*12.3. Gwario'r grant a dderbyniwyd ar gyfer datblygu'r rhaglen academaidd gymeradwywyd a chyflwyno cyfiawnhad o'r treuliau.*<br>*12.4. Mae'r ymgeisydd a ddewiswyd yn cytuno i rannu allbynnau'r ymweliad, yn gyfan gwbl neu'n rhannol, drwy sgwrs neu gyflwyniad, mewn modd y cytunwyd arno gyda Sefydliad Etxepare. Anfonir adroddiad gwerthuso o'r gymrodoriaeth ymchwil*<br><br>*12.5. Bydd gan Brifysgol Cymru Y Drindod Dewi Sant a Sefydliad Etxepare yr hawl i ledaenu drwy eu platfformau y papurau ymchwil y mae'r ymgeisydd yn eu cyhoeddi o ganlyniad i'r preswyliad, ar yr amod nad oes unrhyw ddefnydd masnachol.*<br>*12.6. Mae hawlfraint allbwn yr ymchwil o'r preswyliad yn eiddo i'r ymchwilydd, ond yn ystod unrhyw gamau cyfathrebu, cydnabyddir i'r gwaith gael ei ddatblygu yn ystod y Gymrodoriaeth a gefnogwyd gan Brifysgol Cymru y Drindod Dewi Sant a Sefydliad Basgeg Etxepare.* |
| **13. ORDAINKETA** | ***13. TALIADAU*** |
| Egonaldian parte hartuko duen ikertzaileari honela egingo dizkio ordainketak Etxepare Euskal Institutuak:<br>- %50 hautapena onartu eta gehienez 15 eguneko epean.<br>- %50 jarduera amaitu eta deialdi honetako 12. puntuan aipatzen diren baldintzak beteta, beranduenik ere 2023ko abenduaren 31n.<br>Zenbateko honi kendu egingo zaizkio, hala dagokionean, indarrean dagoen zerga araudiaren baitan dagozkion atxikipen eta konturako ordainketak.<br>Kasua bada, jarduera hasteagatik aplikagarria den atxikipena, onuradunak eskatu beharko du. Eskaera hori egonaldia onartzeko unean aurkeztu beharko da.<br>Unibertsitateak zuzenean ordainduko ditu ostatu gastuak. Egitarau akademiko eta kultur programari lotutako gastuen kasuan, ezin badiitu gastuak zuzenean | *Bydd y taliad i'r ymchwilydd yn cael ei wneud gan Sefydliad Basgeg Etxepare fel a ganlyn:*<br>*- 50%: Dim hwy na 15 diwrnod ar ôl derbyn y cynnig grant.*<br>*- 50%: ar ôl y preswyliad a chyflawni rhwymedigaethau pwynt 12, heb fod yn hwyrach na 31 Rhagfyr 2023.*<br><br>*Bydd y didyniadau a'r taliadau cyfatebol ar gyfrif yn cael eu cymhwyso i'r swm hwn yn unol â rheoliadau treth.*<br>*Os yw'n berthnasol, rhaid i'r ymgeisydd ofyn am y didyniad ar gyfer dechrau'r gweithgaredd. Bydd y cais hwn yn cael ei gyflwyno ar adeg derbyn y grant.*<br><br>*Bydd y Brifysgol yn talu'r costau llety yn uniongyrchol. Gyda chostau'n gysylltiedig â'r rhaglenni academaidd a diwylliannol, os na all y Brifysgol dalu'r cyflenwyr yn uniongyrchol, bydd yn ad-dalu treuliau'r* |

| | |
|---|---|
| ordaindu, irakasle hautatuari gastuaren kopurua itzuliko dio honek aurkeztutako gastu agirien arabera. | *ymgeisydd yn unol â'r derbynebau a gyflwynir.* |
| **14. EZ BETETZEAK** | ***14. DIFFYG CYDYMFFURFIO*** |
| Deialdi honetako 12. puntuan ezarritako betebeharrak beteko ez balira, ez betetzea gertatu dela ulertuko da eta aukeratutako pertsonak itzuli egin beharko dizkio EEIri jasotako diru-kopuruak gehi horiei legez dagozkien interesak. | *Os na fydd ymrwymiadau pwynt 12 yn cael eu cyflawni, bydd yn rhaid i'r ymgeisydd ddychwelyd y taliadau a dderbyniwyd ynghyd â llog cyfreithiol i Sefydliad Etxepare.* |
| **15. DATUEN BABESA** | **15. *DIOGELU DATA PERSONOL*** |
| Datuen babesari buruzko araudiari jarraituz, deialdi honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak “Euskal Hizkuntza eta Kultura Lektoreak eta Katedretako Irakasle Gonbidatuak” izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira, eta deialdi honen xedeetarako erabiliko dira soilik. Honen arduraduna Etxepare Euskal Institutua izango da. Legezko betebeharrik izan ezean, eta proposatutako hautagaien kasuan, dagokien unibertsitateetara bidaltzearen kalterik gabe, ez zaizkio hirugarren bati lagako.<br><br>Interesdunak ondoko eskubideak ditu: datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, datuen eramangarritasunerako, tratamendua mugatzeko eta kontra egiteko, baita banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko ere. Interesdunak eskubide hauek egikaritu ditzake, eskabidea ondoko helbidera zuzenduz: Etxepare Euskal Institutua, Andre Zigarrogileen plaza, 1, Tabakalera eraikina, 20012 Donostia, edo Datuen babes ordezkariari, hurrengo helbidean: dpd-dbo@euskadi.eus. | *Yn dilyn y fframwaith cyfreithiol ar gyfer diogelu gwybodaeth bersonol, cydnabyddir y bydd y wybodaeth bersonol a anfonir i gymryd rhan yn yr alwad hon yn cael ei hychwanegu at y gronfa ddata "Euskal Hizkuntza eta Kultura Lektoreak eta Katedretako Irakasle Gonbidatuak" ac mai dim ond ar gyfer yr alwad hon y caiff ei defnyddio. Sefydliad Etxepare yw'r parti cyfrifol ar gyfer rheoli data gwybodaeth bersonol. Oni bai bod gofyniad cyfreithiol, neu gysylltu â phrifysgolion yr ymgeiswyr, ni fydd y wybodaeth bersonol yn cael ei rhannu â thrydydd partïon.*<br><br>*Mae gan y partïon â diddordeb hawl i gael mynediad, cywiro, dileu'r wybodaeth bersonol a ddarperir, yn ogystal â gwrthwynebu a chyfyngu ar drosglwyddo, trin data, a thrin eu gwybodaeth bersonol yn awtomatig. Er mwyn arfer eu hawliau, bydd y partïon â diddordeb yn cysylltu ag Etxepare Euskal Institutua, Andre Zigarrogileen plaza, 1, Tabakalera eraikina, 20012 Donostia, neu fel arall: dpd-dbo@euskadi.eus.* |